

Toti Martínez de Lezea | 'Nur eta Afrikarako bidaia'

Imajinazioa sustatzen jarraitzeko Nigeria bisitatuko du irakurleak Nurrekin

Toti Martínez de Lezea Nur bilduman kaleratutako 18. alea eta saldutako 350.000 aleak ospatzeko omenaldia antolatu du Erein argitaletxeak



Itigo Arizmendi



Jon Agirre
Donostia

[+ Seguir](#)


Viernes, 28 de junio 2024, 14:47 | Actualizado 15:46h.

Comenta

Toti Martínez de Lezea (Gasteiz, 1945) ezagun batek botatako apustu batek bultzatuta hasi zen idazten eta, ironikoki, erronka batek abiatu zuen Nur bilduma 2008an. Orduetik 18 ale ondu ditu, azkena 'Nur eta Afrikarako bidaia' eta argitalpena zein 350.000 ale saldu izana ospatzeko omenaldia antolatu du ostiral honetan Erein argitaletxeak.

Ordurako idazle ezaguna zen Martínez de Lezea batez ere eleberrri historikoa kaleratuta eta «erronka berri bat» planteatu zion 'Iturri'-k «haurrentzako ipuin baterako pertsonaia bati forma ematea». Hasieratik erantzun zien idazle arabarrak ipuinik ez zuela idatziko, «haurrentzako eleberria» baizik eta pertsonaia jada bazuela: Nur biloba. Hala heldu zen 'Nur eta irlandar gnomoa' eta ondorengo aleetan beste hainbat herri eta mundutara eraman du irakurlea Martínez de Lezeak eta azken honekin zor bat kitatu du Nur lehen aldiz Afrikara eramanda, zehazki Nigeriara. Iturrik goraiapatu bezala, istorio guztiek «abentura eta irudimen zama handia» dute eta haur idazkietan oro har txertatzen den «gehiagiko karga pedagogikotik ihes» egiten duela.

'Nur eta Afrikarako bidaia'



Egilea: Toti Martínez de Lezea.

Ilustratzailea: Ivan Landa.

Argitaletxea: Erein.

Adin gomendatua: 8-12 urte.

Orrialdeak: 144.

Prezioa: 15,5 euro.

Haurren imajinarioen zuen eskarmentua baliatuta, besteak beste 1986tik 1992ra ETBrentzako mila saio baino gehiago idatzi baitzituen -tartean Poli eta haren inguruko lagunak sortuz-, baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailerako 40 bat programa ere edota Kukubiltxo taldearen sorreran egindako lana, Irlandako gnomo batekin topo egin eta benetako adiskidetasuna eratzen zuen neskaren istorioa plazaratu zuen.

Agerraldian, gainera, Jexuxmari Mujika, Ereingo lehendakariak azken alea enmarkatuta oparitu dio Martínez de Lezeari argitaletxearen izenean 350.000 aleen kopurua erdietsi izana ospatzeko. «Egun pozgarria da guretzat», azaldu du 'Iturri'-k, «ez dut uste inori burutik igaro zitzaionik zifra hauetara iristea. Musikan zilarrezko eta platinozko diskoak daude, baina literaturan ez dago halakorik», adierazi du.

Saldutako ale kopurua bildumaren arrakastaren seinale dela nabarmendu dute Ereinetik, «euskarazko best-seller» izaera lortzeraino. Izan ere, euskaraz gaztelaniaz saldatuakoen bikoitza erdietsi du. Guztietan gehien saldu dena lehena da, ohikoa halako bildumetan, eta ostean hirugarrena 'Nur eta herensugearen tenplua', hein batean Juan Bautista Berasategik egindako animazio pelikulak eraginda.

Temas [Erein Argitaletxea](#)

Comenta

Reporta un error

Publicidad

Lo más leído

Top 50 >

1 - **La muerte de una motorista de 21 años en Villabona cierra una semana trágica en Gipuzkoa**

2 - **Mueren tres personas tras caer su coche por un puente en Huesca**

3 - **España se convertirá en el segundo país de Europa con una jornada laboral más corta**

4 - **Los lujos de la vivienda de San Sebastián más cara que puedes encontrar a la venta**

5 - **Las divertidas propuestas de Buenafuente y Berto sobre el irrintzi y sus posibilidades para ligar: «En Euskadi tenéis fama de%u2026»**

[Ver más](#)

Publicidad

Te puede interesar


El precio de la gasolina da un giro radical días antes de la Operación Salida de millones de vehículos
LAS PROVINCIAS




Un hotel de cuatro estrellas para temporeros de la cereza
HOY



Isabel Pantoja cancela su concierto en Valladolid por una «crisis de agotamiento»
EL NORTE DE CASTILLA



Nyno Vargas salva su vida tras huir de un coche envuelto en llamas
EL COMERCIO



El detalle de Nico Williams con un athletizale presente en las gradas
EL CORREO



Publicidad

No te pierdas...



La deuda con la Hacienda guipuzcoana de los mayores morosos se reduce

Los casos de melanoma se disparan en Gipuzkoa

Por qué los tapones van pegados a las botellas de plástico (y quién es el responsable)